



UDAL ORTU EKOLOGIKOEN FUNTZIONAMENDURAKO ETA ERABILERARAKO ERREGELAMENDUA

1. Zioen adierazpena

Laudio Udalak, Laudio Udala Garapen Agentzia bitartekoa izanik, eratu nahi du Laudio udalerrirako erreferentzia elementu berria, ortu ekologikoak sortzeko espazioa berreskuratzearen bidez. Helburua da gizarteko sektore guztietan ingurumen heziketa zabaltzen lagunduko duen baliabidea sortzea; horretarako, tokiko herritarren artean jarrera eta balio aldaketa sustatu eta jarrera parte-hartzaileak eta arduratsuak eragin, eta herritarren esku nork bere barazkiak eta ortuariak ekoizteko esparrua jarriko da.

2. Helburuak:

- Gutxiegi erabilitako esparrua biziberritzea, eta landareak berreskura daitezen ahalbideratzea, espezie inbaditzaileak kenduta, Panpa luma-motoak edo akaziak, adibidez. Bertako fruta-arbolak berreskuratu eta sartzea.
- Era guztietako egitarauak egiteko aukera ematen duten azpiegitura eta baliabideak edukitzea, hainbat talderi zuzenduta eta, oro har, hezkuntzan eta ingurumen-partaidetzan lan egin eta interesa duten auzokideei.
- Eskaintzea erregulatu eta araututako gunea, esparrua edo barrutia, laguntza gutxien duten edo baztertuta dauden taldeei, euren kontsumorako elikagaiak landatzeko, lurtean lantzeko eta laboratzeko.
- Sustatzea bioaniztasuna iraunarazteko eta bertako baratze-espezie tradizionalak berreskuratzeko sentimendu positiboak eragingo dituzten balioak .
- Sustatzea Laudioko auzokide bizilagunen artean bizimodu iraunkorrerako ohiturak, hala nola, nekazaritza ekologikoa, ekomugikortasuna edo energien optimizazioa.
- Ematea Ingurumen hezkuntzari berak berez duen esanahia eta zentzua, hezteko balioetan, laguntzeko herritar arduratsuak eta erantzunkizundunak hezten , sustatzeko gizalegezko portaerak, sortzeko taldeen



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

partaidetzarako guneak, bultzatzeko gure ingurunerik hurbilena eta, horren ostean, planeta bera egoera onean iraunaraztera zuzendutako bizimodua .

3. Deskripzioa

Ortu ekologikoen proiektuak badauka, gauzatu ahal izateko, Udalaren jabetzakoa den landa gune bat Ellakuri aldean dagoena; bertan guztira 63 ortu banatu, mugatu eta bereizita ezarri dira, bakoitza 75 m²-koa, eta, behar izan, larrialdi eta premia kasuetan taldeen eskaerei erantzuna emateko, hurrenez hurren elkartu litezke edo bata bestearen ondoan eta segidan batu, gehienez 2 izanik,

Ortuak lau bandatan banatuta daude, eta bandak bide batek erdibitzen ditu. Oso ondo banakatuta daude, zenbakidun egurrezko hesolen bidez. Esparru eta barruti horretan, gutxienez ere bi lursail erreserbatuta geratu dira: bata konposta egiteko eta bestea ortuen erkidegoaren, komunitatearen mintegi-hazitegia izateko.

Halaber, aurreikusi da bi etxola izatea, erabiltzaile bakoitzak labore-lanak egiteko behar dituen bere jabetzapeko erremintak, lanabesak eta materialak gorde ditzan.

Ortuetan honako zerbitzu hauek izango dira: banakako ur-hornidura eta energia elektrikoa. Esparruaren ingurua itxita egongo da.

4. Jabetza eta kudeaketa: Lagapen-hartzaileen erkidegoa edo komunitatea

Lursailak Udalaren jabetzakoak direnez, Udalaren eskumena izango da horiek administratzea eta zuzentzea. Alde horretatik, Udalak beretzat gordetzen du lursailen berrantolaketa eta banaketa aldaketak egiteko eskubidea, baita izan daitekeen edozein gertaera edo ustekaberen ondorioz luze-zabalerako azalerak aldatzeko eskubidea ere. Aisialdiko ortu baratze ekologikoak landatzeko edo labore-lanetarako erabiltzen lagatzeak ez dakar inola ere lurzoru horren jabetzan eskualdatzerik, beti izango baita udal jabetzapekoa.

Aipatu den erabileraren lagapena formalizatu eta gauzatzearen ondorioetarako, lagapenak gehienez 4 urte iraungo ditu, ez bada lagapen-kontratua amaitu aurretik erregelamendu araudi honetan jasotako azkentze-



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

klausularen baten mende pean erori. Udalak beretzat gorde du epe hori aldatzeko eskubidea eskaeren arabera.

Ortua, baratzea pertsona bakar bati esleituko zaio, titular gisa, eta ez du izango ez lagatzeko ez eskualdatzeko aukerarik izango, eta ondorio guztietarako bera izango da baratzeko arduraduna, bai bertan ezartzen diren erabilerena, bai produktuen. Erabiltzeko baimena, une oro, pertsonala eta eskualdaezina izango da eta bere ondorioak izango ditu erregelamendu honetan adierazitako baldintzetan. Hala ere, lagapen-hartzaileak bere ordezkari bat izenda dezake, bera egon ezean edo behar bezala emandako beste arrazoi batzuegatik, beti berak eskatuta. Azkenik, lagapen-hartzailea hiltzen bada edo jarduerako berezko lanetan parte hartzea eragozten dion gorputz edo adimeneko ezintasun iraunkorrik baldin badu, horrek eragingo luke lursaila erabiltzeko lagapena desegitea, bertan behera geratzea, hau da, deuseztatzea.

Aisialdiko ortu ekologikoren baten lagapen-hartzaileak elkarrekin edo erakundeak izanez gero, adostu ahal izango dute euren lursailetan elkarrekin lan egitea, baldin eta mugakideak badira eta gehienez bi lursail badira.

Udalak beretzat gorde du zenbait lursail erreserbatzeko ahalmena, bestelako jarduerak egiteko (formakuntza, hezkuntza, esperimentalak, etab.), eta, eskaera nahikorik ez badago, talde bakoitzaren ehunekoa aldatu ahal izango du.

Ortuen lagapen-hartzaileek lagapen-hartzaileen komunitatea osatu beharko dute. Komunitate horrek Udalarekiko harremanak ezartzeko ardura izango du ordezkarien bitartez.

Lagapen-hartzaileek beraiek izango dute denon zonaldeak garbi izateko eta esparru orokorra ondo iraunarazteko ardura eta Udalari eman beharko diote denon elementuen gorabeheren berri, konpon ditzan.

Zaintza eta egoera onean izatea lagapen-hartzaileen ardura baino ez da izango, baita esparrua irekitzea eta ixtea ere.

**GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013**

Komunitateak, bere ordezkariaren bidez, hiru hilean behin kontagailuen irakurketaren egoeraren berri eman beharko du.

Komunitateak berak izan behar du hondakin orokorretatik konposta ekoizteko gunearen ardura, baita ohiko mantentze-lanak banatzeko ardura ere. Horretaz gain paperontzietako hondakinen kenketa kudeatuko du.

Komunitateak urtean behin igorriko dizkio ortuak kudeatzeko arlo-arduradunari ekitaldi horretarako bitartekarien izen-abizenak, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak, eta esango dio zein diren esparrua zabaldu eta ixteko arduradunak.

5. Lagapen-hartzaileak

Ortu ekologiko baten lagapena izateko aukera izateko, ezinbesteko betekizuna izango da adinez nagusia eta Laudioko auzokidea izatea, biztanleen udal erroldan 6 hileko antzinatasunaz inskribaturik.

Bizikidetza-unitate bakoitzeko eta etxebizitzako ortu bakarra laga ahal izango da, bera partekatzen duten pertsonen arteko ahaidetasun-harremana edozein izanda ere.

Interesdun pertsonak gune bana eskatu ahal izango dute eta eskabidean adieraziko dute famili unitatean zenbat diren guztira.

Ezin izango dira lagapen-hartzaileak izan Laudio udalerrian landu daitezkeen lurren jabeak. Horietaz gain, aukeratik kanpo geratuko dira lursaila gaizki erabiltzeagatik erabilera kendu zaien pertsonak ere.

Talde-erabilerako lursailak eskatu ahal izango dituzte irabazi asmorik gabeko Laudioko elkarteek, jarduerak gizarte gaiei begira garatzen badituzte.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

Halaber, taldeek eskabidean jasota utzi beharko dute zenbat pertsonak lan egingo duten ortuan, sartzeko eta erabiltzeko beharrezko baimenak emateko ondorioetarako. Lursailak zozketa bidez esleituko dira.

Udalak agiri pertsonal bat emango dio lagapen-hartzaile bakoitzari. Agiria eskualdaezina izango da eta erabilera hautazkoa izango da.

Lursailen banaketari dagokionez, lagako dira honako irizpide hauen arabera:

- Luze-zabalera guztiko azaleraren ehuneko 10 taldeentzat izango da, eta lehen ehuneko 50 banakako eskatzaileentzat.
- Ortuen edota baratzeen luze-zabalera guztiko azaleraren gainontzeko ehuneko 40 Laudio Udalaren Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloak ezarritako gizarte irizpideei jarraiki lagako da.

Ortu ekologiko baten lagapen-hartzaileak izan nahi duten pertsonak, baldin eta oinarri hauetan adierazitako gizarte irizpideak baliatu nahi badituzte, euren eskabideak aldeztu aurretik ezarritako hiru taldetan banatuta ikusiko dituzte, gure herrian babesik txikiena duten sektoreak programan sar daitezela hobeto bermatzeko eta dauden lurak ahalik eta modurik bidezkoenean banatzen direla ziurtatzeko. Horrela izanik, gizarte lursailak lagatzeko ezarritako diren puntuak zehazte aldera, lehentasuna emango zaie ondoren zehaztuko diren taldeei (taldeetako bakoitzarentzako puntuazio egokiak zehaztuko dira, gehienezko 10 puntuetaraino):

1.taldea: diru-sarrerak bermatzeko errenta edo udal mantentze-prestazioa jasotzen duten pertsonak

- Guraso bakarreko familietako pertsonak (ardurapean adinez txikiak dituzten amak edo aitak) seme-alaba bakoitzeko 2 puntu jasoko dituzte, gehienezko 6 punturaino, seme-alaben babes eragingarria egiaztatzen badute.
- Familia ugariak puntu 1 jasoko dute adinez txikia den seme-alaba bakoitzeko.
- Famili bortizkeriaren biktima izanez gero, zuzenbidean onartutako froga baliabideez egiaztaturik: 2 puntu.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

- Egokitasuneko gizarte txostenak 2 punturaino emango ditu.

2. taldea: 52 urtetik gorako pertsona langabeak

- Langabezian urtebetetik gora egoteagatik (urte bakoitzeko puntu 1) guztira 4 puntu emango dira.
- 2 puntuz baloratuko da inolako beste prestaziorik ez jasotzea (ezta DBE ere) edo prestazioak agortu izana.
- Eskatzailearen kargura aitortutako ehuneko 33tik gorako ezintasun psikiko, fisika edo zentzumenekorik duen eta lanerako ezgai den ahaideren bat izanez gero, 2 puntu jasoko ditu.
- Egokitasuneko gizarte txostenak 2 punturaino emango ditu.

- 3. taldea: aitortutako ehuneko 40ko ezgaitasuna duten pertsonak¹

- Ezgaitasuna ehuneko 40 eta ehuneko 49 artean badago: 4 puntu
- Ezgaitasuna ehuneko 50 eta ehuneko 65 artean badago: 6 puntu
- Egokitasuneko gizarte txostenak 4 punturaino emango ditu.

Jasotako eskabide guztiak egokitasuneko gizarte txosten labur baten bitartez ebaluatuko dira, eta eskabideetariko bakoitzean agertu eta puntuatu ez diren aldagai pertsonal guztiak aztertu ostean (gaiari loturako alde zuzeneko formazioa, gaitasuna, motibazioa, gizarte zerbitzuetako ibilbidea, etab.), bertan puntuazio gehigarri bat sartuta, 0 eta 4 puntu artean. Txosten hauek puntuatu ahal izango dira, gizarte gaietan aritzen diren tokiko elkarte eta erakundeek egindako gizarte txostenetan oinarrituta (ASASAM, Caritas, APDEMA eta beste batzuk)

Kasu bakoitzeko egiaztagiria:

Talde guztientzat: altuerako talde etxebizitzan bizitzea.

taldea: errolda agiria

2. taldea: enplegu-eskaria

**GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013**

3. taldea: ezgaitasun ziurtagiria

6. Lagapen-hartzaileen eskubideak

- Aisialdiko ortu ekologikoen proiektuan parte hartu duela egiaztatzen duen agiria jasotzea, bertan norberaren datuak eta esleitutako lursailaren zenbakia adierazita.
- Aipatutako lursaila lantzea eta bertako produktuez gozatzea.
- Lanabesak gordetzeko toki estali bat izatea.
- Proiektuaren inguruan antolatutako jarduera guztietan parte hartzea.

7. Lagapen-hartzaileen betebeharrak

- Ortu ekologikoak erabiltzeko erregelamendua errespetatzea; lagapen-hartzaileak bere unean horren kopia bat jasoko du.
- Instalazio guztiak zuzen erabiltzea eta nork bere lursaila une oro ondo zainduta eta garbi izatea.
- Gainontzeko lagapen-hartzaileekiko harremanetan errespetuzko elkarbizitza zuzena izatea.
- Lursaila tantaka ureztatzeko sistema instalatzea. Ureztatzeko ezinbesteko ur kopurua kontsumitzea, baimendutako ordutegietan.
- Lursaileko labore-lanetatik ateratako hondakin organikoak birziklatzea eta gainontzeko hondakinak edukiontzietan sartzeta, konposta egiteko, edo zuzenean horretarako gordetako lursailean uztea.
- Ikusi eta ez-ohikoa den edozein funtzionamenduren berri ematea proiektuaren udal arduradunei, arazoa ahalik eta lasterren ebazteko xedeaz.
- Nork bere instalazioan hondatzen diren elementuak konpontzea edo ordezkatzeta.
- Ortu artean eta denon zonaldeen artean banaketa artifizialik ez egitea, ez hesirik, ez gainontzeko lursailei itzala eragiten dien elementurik. Lagapen-hartzaileek ezin izango dute ekimen pertsonaleko inbertsiorik egin. Ez sartzeta instalazioetatik kanpotiko elementurik, hala nola: bidoiri, bainuontzirik, bankurik, kaxarik eta berotegirik. Ekipamendua denok erabiltzeko da, beraz, ordenaturik eta egoera onean iraunarazi behar da. Udalak beretzat gordetzen du laborantzako lanabesen biltegi bietan aldizkako ikuskapenak egiteko aukera.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

- Emandako akreditazioa aldean eramatea, ortuetan egon bitartean, edozein unetan udal arduradunek eska dezakete eta.
- Ortuak erabiltzeko orduan ezar litezkeen kuotak ordaintzea, zehaztutako forman eta epean. Bildutako dirua ortuetako esparruaren ohiko mantentze-gastuak ordaintzeko erabiliko da.
- Gaizki erabiltzeagatik kalteak izan, hondatu edo galdu diren ondasunak edo lanabesak konpontzea edota ordezkatzeta. Konpondu ezean, kopurua hasierako fidantzari kenduko zaio. Hasierako fidantza nahikoa izan ezean, aldea ordaindu beharko da. Horretaz gain, lagapenean segitzeko, beste fidantza bat ordaindu beharko da.
- Lursailarekin mugakideak diren korridoreak garbi izatea eta harriak, egurrak, landareak, hondakinak edo lurra kentzea, baita esleitutako fruta-arbolak zaintzea ere (ureztatu eta jorratzea), behin landatuta. Halaber, ortuko mugetan dauden heskaietako edo landutakoaren airetiko aldea kanpora atera dadila saihestea, denon zonaldeak, alboko ortuak edota bideak har ez ditzaten. Sail landatutik berorietara gutxienez 30 cm-ko aldea utzi beharko da.
- Lursaila barazki edota loreak landatzeko baino ez da erabiliko eta modu ekologikoan egingo da, beraz, berariaz debekatuta egongo da herbizidak, pestizidak eta ongarrri kimikoak erabiltzea, baldin eta nekazaritza ekologikoari buruzko indarreko legeek horien erabilera baimentzen ez badute.
- Lagapen-hartzaileak konpromisoa hartzen du bere haziak erabiltzeko, edota jatorri ekologikoko landareak edo haziak erabiltzeko, eta berariaz dago debekatuta hazi transgenikoak erabiltzea.
- Ortua egoera onean uztea, erabilera-epea amaitutakoan, jasotako giltzak eta tresnak itzuli aurretik.

8. Udalaren konpromisoa

Laudio Udalak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du aisialdiko ortu ekologikoak lagapen-hartzaileen esku jartzeko, behar bezala prestatuak: lurzoru emankorra eta, ureztapen-sistema instalatzeko banakako ur-irteera, lanabesak eta bestelako tresnak gordetzeko toki komunitarioa, eta inguruko hesia.

Udal arduradunek une oro instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, agiri honetan zehaztutako arauak betetzen direla egiaztatzeko xedeaz.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

Udalak lagapen-hartzaileei aholkua emango die aisialdiko ortu ekologikoak egokiro erabil ditzaten. Horretarako, lagapen-hartzaileek formazio ikastaro bat egingo dute, eta horrek balioko die nekazaritza ekologikoari buruzko oinarrizko ezagutzak lortzeko, hainbat gai landuko dira eta: hazien hautapena, ortuen prestakuntza, landaketa, prebentziozko tratamenduak, izurri eta gaixotasunen aurkako natur tratamenduak, tantakako ureztapena (lursailean ureztapen-sistema instalatzeko laguntza), etab. Ikastaro horietan parte hartzea nahitaezkoa izango da, bai norbanakoentzat, bai taldeentzat, ez bada monitorearen lana egiten duen pertsona batekin lan egiten dutela eta kasu horretan eskarmentu nahikoa duela egiaztatu beharko du.

9. Lursailak eta landaketak erabiltzeko arauak

- Ortuko nekazaritzan barazki, lore eta fruituak baino ezin izango dira landu eta berariaz dago debekatuta nekazaritzako eta nekazaritzatik kanpoko beste edozein jarduera, esaterako, produktuen salmenta, edonolako biltegiatzea edo eraikuntza-lanak. Betebehar hori ez betetzeak lagapena automatikoki ezeztatzea ekarriko du.
- Landaketa modu ekologikoan egin behar da eta horretarako baimendutako gehienezko 175 cm-ko altuera ezarri da. Kanpoan geratzen da heskaiak eta zuhaitzak landatzea, baita edozein espezie aloktono ere, hala nola landare psikotropikoak edo legez debekatutakoak landatzea.
- Inola ere ezin izango da, inolako arrazoiengatik, lursailen jatorrizko trazaera aldatu. Ez dago baimenduta lursailak ixtea heskaiez, heziez, harrizko hormez, adreiluez, blokez edo eraikuntzako gaiez, edozein dela ere.
- Ortuetatik ateratako produktuak ezin izango dira saldu, erregelamendu honetan bertan xedatuta baitago famili kontsumorako direla.
- Ondoren zehaztutako azpiegituretarako baino ezin izango da baimenik eman:
 - Hazitegi 1
 - Berotegi edo plastikozko tunel txiki 1
 - Azpiegitura horietarako gehienezko neurriak formazio ikastaroan adierazitakoak izango dira.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

- Hondakinak birziklaketarako gune ekologiko batean jarriko dira, ortuetatik hurbil, eta lursailetan ez da hondakinik egon behar. Lagapen-hartzailearen betebeharra izango da denon erabilerarako konposta egiteko eta bera banatzeko egutegia finkatzen laguntzea.
- Berariaz dago debekatuta produktu kimikoak erabiltzea, esaterako, ongarri kimikoak, herbizidak, fungizidak, intsektizidak, akarizidak, nematizidak, helizidak, arratizida, bakterizida, hegazti-uxagarriak, etab. Nekazaritza ekologikoaren tekniketari oinarritutako estrategiak baino ez dira baimenduko, honako hauek, besteak beste:
 - Landaketak ordezkatzeko eta txandakatzeko.
 - Izurrietarako harrapari naturalak erabiltzea.
 - Aldaratzeko naturalak erabiltzea.
 - Intsektuak erakartzekoak erabiltzea.
 - Nekazaritza ekologikoaren praktiketari onartutako produktu fitosanitarioak erabiltzea.
- Ez dago baimenduta fauna harrapatzeko tranpa edo metodo ez-hautazkoak erabiltzea, baita beita jartzea ere, substantzia pozoitsuak izan zein ez.
- Erabili beharreko tutoreak estetikari begira inguruarekin bateragarriak izan behar dira.
- Lagapen-hartzaile bakoitzak bere lursailaren mantentze-lana egin beharko du eta berdin egingo du urteko sasoi guztietan zehar. Ortuak abandonatutakotzat hartuko da baldin eta: a) landaketen zainketa falta agerikoa bada; b) belar txarrek gainazalaren ehuneko 50 hartzen badute; c) izurri edo parasito ugari badago eta alboko lursailetakoko laboretarako arriskua ekartzen badute.
Alde horretatik, mantentze-lana lursail osoan egin behar da eta ez bakarrik lursailaren gainazalaren zati batean. Mantentze-lanen barrukotzat hartuko da ortu bakoitzari ehunekotan dagokion bide zatia, horrela izanik, azken emaitza izango da barruko bide guztiak garbitzea.
- Hirugarrenak ezin izango dira sartu ez bada lursailaren lagapen-hartzailearekin batera. Salbuespen gisa, lagapen-hartzaileak baimena eman ahal izango dio hirugarrenari bere lursailan sartzeko, urtean egutegiko 60 eguneko gehienezko denboraldi baterako, eta denboraldia luzatu ahal izango da, behar bezala egiaztatutako arrazoi medikoengatik. Baimendutako pertsonak agerian eraman beharko du Udalak emandako akreditazio egokia.
- Udalak ez du erantzukizunik izango erabiltzaileek jardunean hartu edo eragin ditzaketan kalteei dagokienez, ezta hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteei dagokienez ere.

**GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013**

- Lagapen- eta erabilera-denboraldia amaitu, utzi edo ebatzitakoan, armairuak eta lursailak garbi eta lanabes pertsonalik gabe geratu beharko dira. Horrela izan ezean, Udalak berak bereganatuko luke lan hori, inolako ordainik eragin gabe.
- Lursaila erabiltzeko lagapena desegin dela jakinarazita, lagapen-hartzailea izan den pertsonak egutegiko zazpi egun izango ditu bere laboreak eta egon litezkeen instalazioak kentzeko. Behin epea amaituta, erakunde kudeatzaileak lursaila garbitzeari ekingo dio eta erabiltzaileak ez du inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango.
- Udalak ez du erantzukizunik izango ortuek edo erabiltzaileek izan litzaketan ebasketa, lapurreta edo bestelako ekintza kaltegarriek dagokienez, ezta aurkako gertakari meteorologikoen, esaterako, kazkabarrak edota uholdeek, lursailetan eragin litzaketan kalteei dagokienez ere.
- Udalak ez du erantzukizunik izango erabiltzaileek jardunean hartu edo eragin ditzaketan kalteei dagokienez, ezta hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteei dagokienez ere.

10. Berariazko debekuak

- Lurrerako txarrak diren landareak landatzea.
- Aldaketa transgenikoak izan dituzten espezieak erabiltzea.
- Etxolen, fatxaden edo barrualdeen egitura aldatzea (iltzeak jartzea, zulatzea, pintatzea, etab.).
- Esekilekuak edo inguruaren itxura aldatzen duen beste edozein elementu eraikitzea edo jartzea.
- Edozein motatako ibilgailu sartzea; hauek izan ezik: bizikletak, haurren kotxeak edo gurpildun aulkiak, edo lagapen-hartzaileen mugikortasuna erraztea objektu legez duten beste batzuk.
- Ortuen esparruaren barruan animaliak eraman edo paseatzea.
- Su egitea edo erabiltzea, helburua edozein izanda ere.
- Guztiz debekatuta dago landatu edo ereitea landare psikotropikoak edo legez kanpokokoak.

11. Lagapen-hartzailatza galtzea

Lagapen-hartzailatza automatikoki galduko da honako arrazoi hauengatik:

- Borondatezko uko-egitea edo baja, Udaletxean aurkeztutako idatzi baten bidez.
- Auzotasuna beste udalerrri batera aldatzea.
- Hiru hilabete segituan lursaila ez landatzea.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

- Jarduna bertan behera uztea, urtean 6 hilabeteko batura duten bi denboralditan.
- Lursailaren erabilera baimentzeko arrazoi izan diren inguruabarrak behingoan desagertzea.
- Ortua erregelamendu honetan zehazten ez diren helburuetarako eta moduan erabiltzea.
- Elkarbizitzarako oinarriko arauak ez errespetatzea, elkartasunik gabeko jarrera izatea, ur kontsumo ulergaitza izatea, edo produktu toxikoak edo toxikoak izan daitezkeenak erabiltzea, arauak baimentzen ez dituzten dosietan.
- Ortuko landaketatik lortutako produktuak salgai jartzea.
- Lagapen-hartzailea hiltzea, gaixotasun kronikoa izatea edo ortuan lan egiteko ez gai izatea. Kasu horietan, jaraunsleek edo horretarako izendatutako familiakoek baimena izango dute ortuko produktuak eta instalazioetako gauza pertsonalak hartzeko.
- Erabiltzeko baimena desagiteak, edozein arrazoirengatik, ez du inola ere eragingo kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik.

12. Fidantza eta prezioa

Lagapen-hartzaileak 30 euroko hasierako fidantza ordaindu behar du. Fidantza hori konpromiso pertsonalaren seinalea da, nor bere eginbeharrak beteko dituela adierazteko. Fidantza bueltatu egingo zaio ortua laga zaion denboraldia amaitzen den unean.

Halaber, lagapen-hartzaileak hiru hilerik behin kuota bat ordaindu beharko du; kuotaren zenbatekoa urtero ezarriko da ordenantza fiskaletan. Kuota hori ekarpen solidarioa izango da, proiektuko instalazioetako. Lehenengo urtean honela ezarri da:

- Norbanakoen ortuak: 30 euro hiru hilean behin.
- Ortu bikoitzak-taldeenak: 50 euro hiru hilean behin.

Gizarte irizpide hutsez lagatako ortuak doakoak izango dira beroriek jasotzen dituzten lagapen-hartzaileentzat.

Lagapen-hartzaileek ur kontsumoa ordaindu beharko dute. Unitateko zenbatekoa/m³ ezarriko zaie, hargune orokorreko irakurketaren ondoriozkoa. Kontsumoa 12 m³ ortuko (75m²) eta hilabeteko kopurutik behera badago, ezarriko den tarifa ur zerbitzuko prestazioetarako udal ordenantzari dagokiona izango da.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

Ortuko (75m²) eta hilabeteko 18 m³-rainoko kontsumoetarako, ordainketan ehuneko 50eko errenergua izango du.

Ortuko (75m²) eta hilabeteko 18 m³-ko kontsumoa gaituz gero, lehendabiziko aldia ehuneko 100eko errenergua izango du tarifa. Bigarren aldia, ur hornidura hilabetez zigilatuko zaio. Horrenbesteko kontsumoa hirutan izanez gero, ortua erabiltzeko eskubidea kenduko litzaioke.

Udaleko Gizarte Zerbitzuek izendatutako lagapen-hartzaileen kasuan, izan daitezkeen ekarpenak edo fidantzak Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloak arautuko ditu eta arau honetatik kanpo geratuko dira kuotei, fidantzei dagokienez; ez, ordea, ur kontsumoaren kontrolari dagokienez eta erabilpenerako arau hauetan xedatutako gainontzeko betebeharrak dagokienez, atal arau-hausle eta zehatzailea barne.

Udalak beretzat gordetzen du ureztatze denborak eta ezarri beharreko tarifa diferentzialak doitzeko ahalmena, baita ureztapena erabat eteteko ere, urteko egoera meteorologikoen giza kontsumoa arriskuan jarri gero.

13. Zabaltzeko eta ixteko ordutegia

Ortuak zabaltzeko eta ixteko ezarritako hasierako ordutegia honako hau da:

- Negualdian (azaroaren 1etik martxoaren 31ra): 9:00etatik 18:00etara.
- Udaldian (apirilaren 1etik urriaren 31ra): 7:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Lagapen-hartzaileen komunitateak beste ordutegi bat ezarri ahal izango du, baldin eta Udala jakinaren gainean jarri eta lagapen-hartzaile guztiei behar bezala jakinarazten bazaie.

14. Deialdia eta eskabideen aurkezpena

Ortu ekologikoak eskatzeko prozedura deialdi publikoaren bitartez egingo da eta deialdia hedabide egokietan argitaratuko da (Zuin, tokiko irratia). Eskabideak aurkezteko epea deialdian bertan zehaztuko da, baina ezin izango da inoiz izan egutegiko 15 egunetik behera. Eskabide-eredu normalizatuak interesdun pertsonen esku jarriko dira.

**GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013**

Eskabideak Laudioko Udaletxeko HAZn jasoko dira (Herritarrak Atenditzeko Zerbitzua), deialdian bertan ezarritako epearen barruan, eredu normalizatuan eta honako agiriekin batera:

Banakako erabiltzaileen eskabideak:

- Familiaren errolda-ziurtagiria.
- NANaren fotokopia.

Erakundeen edo elkarten eskabideak:

- Estatutuen fotokopia.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroaren inskripzio-ziurtagiria.
- Parte hartuko luketen pertsonen zerrenda.
- Taldeak edo elkarteak justifikazio-memoria aurkeztu beharko du, ortuaren erabilerari buruz, oro har gizarte osoa hezteko edo sentsibilizatzeko xedez.

Ortu kolektiboen erabilera ez da inoiz ortua ustiatzen duten pertsonen erabilera pribatiboa izango, partaidetza, sentsibilizazio edota ingurumen-hezkuntzako proiektu batekiko lotura argia izan behar baitu, non pertsona onuradunak ez dira elkartekoak bakarrik izango.

Arau hauetako 4. puntuan adierazi denez, gehienez elkarbizitza-unitate eta etxebizitza bakoitzeko eskabide bakar bat aurkeztu ahal izango da, batera dauden pertsonen arteko ahaidetasuna edozein izanik ere.

15. Ortuak erabiltzeko baimena

Eskabideek deialdiaren betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ostean, jendaurreko zozketa egingo da, bai lagapen libreko modalitaterako, bai elkarteetako modalitaterako.

Gainontzeko ortuak, hots: gizarte irizpideen araberrako lagapena tartean duten horiek, Laudio Udaleko Gizarte Zerbitzuen esku egongo dira, tratamendurako eta lagapenerako.

Banakoen ortuetarako 5 pertsonaren itxaron-zerrenda egingo da, urtean zehar bajarik dagoen kasurako. Lehen urtearen ostean, berriztapenik ez duten ortuak baino ez dira zozketatuko. Talde eskabiderik egon ezean, ortu guztiak zozketatuko dira banako eskabideetarako.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

Aisialdiko ortu ekologikoak erabiltzeko baimena emateko eskumena Laudio Udaleko Garapen Agentziako Zinegotitzari dagokio eta bertatik jakinaraziko zaie zozketan lursaila erabiltzeko lagapena lortu duten pertsona guztiei bera egokitu zaien eta zein den epea ortu ekologikoak erabiltzeko eta euren funtzionamendurako baldintzen agiria sinatzeko.

Horretaz gain, egoeraren berri emango zaie ekitaldi horretako erreserba-zerrendan dauden pertsoneri.

16. Arau-haustek.

Administrazioari bere erantzukizuna eskatu eta exijitu ahal izan zaio Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean erabakitako eta ezarritako arau, printzipio eta prozedurarekin bat.

Hutsegiteak honelaxe tipifikatu dira: arinak, larriak eta oso larriak.

Falta edo **hutsegite arina** izango da:

- Lagapen-hartzaileak ortuen funtzionamendurako eta erabilerarako arauetan ezarritako oinarriko betebeharren bat ez betetzea.
- Edonor modu desegokian edo begirunerik gabe hartzea, ortuetako lanetan diharduen lagapen-hartzailea, teknikaria zein mantentze-lanetakoa izan.
- Kalteak eragitea, ortuetako instalazioak, materialak eta ekipamenduak ardurarik eta zuhurtzirik gabe erabiltzeagatik, baldin eta kalteak konpontzeak edo ordezkapenak egiteak 100 eurotik beherako kostua eragiten badu.
- Jardueren edo zerbitzuen arduradunek euren eginkizunetan emandako aginduak ez betetzea.
- Nekazaritza ekologikoari dagokionez 2092/1991 (EEE) Erregelamenduan xedatutako irizpideak ez betetzea.



GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013

Falta edo **hutsegite larria** izango da:

- Ortuetoako elkarbizitza eta funtzionamendua eragozteak.
- Ezarritako arauetariko bat behin eta berriro ez betetzea, idatzizko ohartarazpenaren ostean.
- Hitzez edo egitez gaizki tratatzea ortuetoako edozein lagapen-hartzaile, teknikari edo mantentze-langile.
- Udal ondasunak lapurtzea edo kalte larriak nahita eragitea, ortuetoako instalazioetan, materialean edo ekipamenduan. Kalterik eraginez gero, konponketak edo ordezkapenak 100 eta 300 euro arteko kostua dakarrenean.
- Urtebetean hutsegite arin bi edo gehiago izatea. Esleitutako lursaila bertan behera uztea edo egokiro ez izatea, baita egokitu zaizkion lan komunak ez egitea ere.
- Udalerrian erroldatuta egoteari uztea eta baja ez eskatzea.

Oso falta edo hutsegite larria izango da:

- Ortuetoaren erabilera eragozteak erabiltzeko eskubidea duten pertsonen.
- Eragozteak edo oztopatzea ortuetoak ezarritako erregelamenduaren arabera kudea daitezela.
- Ortuetoak erabiltzen ari diren pertsonak fisikoki erasotzea, baita bertako langileak ere.
- Udal ondasunak lapurtzea edo kalteak eragitea, ortuetoako instalazioetan, materialean edo ekipamenduan jokabide arduragabea eta zuhurtziagabearen ondorioz, kalteok 300 eurotik gorako kostua badute.
- Nortasunari, adinari edo funtsezkoa den beste edozeri buruzko datuak nahita desitxuratzea eta nortasuna ordezkatzeko, baita agiriak manipulatzeko eta faltsifikatzeko ere.
- Urtebetean hutsegite larri bi edo gehiago izatea.
- Hutsegite espres guztiak eta haietariko bakoitza aztertu eta aintzat hartuko ditu Laudio Udaleko Garapen Agentziak, eta ebatzi egingo dira zinegotziak hala proposatuta eta alde aurretiko txosten teknikoak izanik.

17. Zehapenak

Hutsegite larrietarako zehapenak hauexek dira:

**GAROÑA 2013an ITXI / GAROÑA CIERRE 2013**

- Idatziz ohartaraztea.
- Erabiltzaile-izaera aldi baterago galtzea, egutegiko egun batetik hamabost egunera arteko denboraldi baterako.

Hutsegite larrietarako zehapenak hauexek dira:

- 150 eurorainoko isuna.
- Erabiltzaile-izaera galtzea, hamasei egunetik hogeita hamarrera arteko denboraldi baterako.

Oso hutsegite larrietarako zehapenak hauexek izango dira:

- 150,01 eta 200 euro arteko isuna.
- Kasurako, ortuko lagapen-hartzailletza behin betiko kentzea.

Ezarri beharreko zehapenaren graduak zehazteko kontuan izango dira honako inguruabar hauek:

- Arau-haustek errepikatzea edo berriro egitea.
- Arau-hauslearen asmoa.
- Gertaerek gizartean duten garrantzia edo eragina.
- Eragindako kalteen larritasuna eta mota.

Zehapenak ezartzea bateragarria izango da arau-hausleari eskatzearekin berak eragindako egoera bere jatorrizko egoerara itzultzeko, baita eragin dituen kalteak eta galerak ordaintzearekin ere.

Kalteak udal titularitateko ondasunetan eragin direnean, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute konponketaren kostua, eta arau-hausleari edo erantzuleari jakinaraziko zaio, ezarritako epean ordain dezan.

Zehapena eragin duten ekintzak pertsona batek baino gehiagok elkarrekin egindakoak direnean, denek erantzun behar dute modu solidarioan. Kalteen erantzule solidarioak izango dira hirugarrenek izan ditzaketen arau-hauste administratiboei aurrea hartzeko legezko beharra duten pertsona fisikoak edo juridikoak.